

“OÑATIN CO2 ISURKETA HELBURUAK BETETZEKO ERABAKIGARRIA IZAN DAITEKE LEHEN SEKTOREA”

- **Oñatiko EAJ udal taldea, basogintza sektoreko nahiz nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko pertsonekin lanean ari da, jeltzaleen iritziz klima aldaketari aurre egiteko aurre egiteko erabakigarriak izan daitezkeen sektore horiek biziberritzeko.**
- **EAJk 2020ko aurrekontuetarako egindako ekarpenen artean zegoen abeltzaintza sektorearen diagnosa egiteko kontu-saila eta diagnosi hori egiteko bidean lanean dabil Andoni Altuna zinegotzi jeltzalea sektoreko hainbat pertsona eta gobernu taldearekin elkarlanean.**

Argi dago egungo gizarteak duen erronka nagusienetako bat, agian nagusiena, klima aldaketari aurre egitea dela. Hori horrela iritzita, EAJk bere jardunaren ardatz nagusietako bat egin du eta horrela jaso zuen bere hauteskunde programan, baina aurreko urteetatik ere bere jardunaren ardatzetako bat izan da eta aurrekontuetako proposamenetan eten gabe egin ditu lehen sektorea biziberritzera bideratutako proposamenak, sektore honen biziraupena klima aldaketari aurre egiteko bidean ezinbestekoa dela pentsatzen baitu. 2020ko aurrekontuetarako bi proposamen konkretu aurkeztu zituen EAJk lehen sektorearen eta klima aldaketaren inguruan, batetik, nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko diagnosa egiteko kontu-saila eta, bestetik, klima aldaketari aurre egiteko plana osatzeko kontu-saila. Proposamen horietan lehena onartua izan zen udalbatzan gehiengoa duen gobernu taldeak aldeko botoa eman baitzuen, bigarrena, aldiz, ez zen aurrekontuetan jaso EH Bilduk bere aurkako bozkarekin atzera bota zuelako. Bi proposamenetan lehena bakarrik onartua izan arren, jeltzaleak bietan ari dira lanean, izan ere, EAJk uste du beharrezkoa dela klima aldaketari aurre egiteko tokiko plan bat osatzea, Eusko Jaurlaritzatik proposatzen diren estrategiekin koordinatuta eta Europak ezartzen dituen helburuak kontutan hartuta.

Lehen sektorearen inguruko diagnosiari dagokionez, Andoni Altuna zinegotzi jeltzalea lanean ari da dagoeneko sektoreko hainbat pertsonarekin eta gobernu taldearekin elkarlanean. Zinegotzi jeltzaleak dioenez, “lehen sektorea giltzarri izan daiteke epe labur zein ertainean, bioekonomia (bertako baliabideez hornitzen dena, alegia) sustatu behar dugu, km 0 produktuen ekoizpena eta kontsumoa sustatu behar ditugu eta gure ingurua zaintzen duen lehen sektorea babestu behar dugu”. Bide horretan, Oñatiko lehen sektorearen diagnosa egitea ezinbestekoa da EAJrentzat, honen biziraupena bermatuko duten neurriak identifikatuz eta klima aldaketari aurre egiteko soluzioen parte izan dadin. Lan horretan dabil buru-belarri Altuna, baina ikuspegi globalago bat alde batera utzi gabe, esan bezala tokiko erakundearen eta gainerako erakundeen arteko sinergiak bilatzeko.

Klima aldaketari dagokionez, epe motzean eragingo duten neurriak hartzea beharrezkoa da jeltzaleentzat, egun bizi dugun klima krisiak ez baitu denbora tarte handirik uzten. “Epe motzean emaitzak emango dituzten neurriak landu behar ditugu klima aldaketaren eragina behin betikoa izan ez dadin, aldi berean epe ertain eta luzekoak landuz, baina ez azken horiek bakarrik, eraginkorrak izan behar dugu lehen bai lehen”. Zinegotzi jeltzaleak gaineratu duenez “klima aldaketari aurre egiteko, tokian tokitik lan egin behar dugu globalean eragina izateko eta horretarako arazoaren zein zati dagokigun kontziente izan behar dugu, soluzioaren zein zati dagokigun jakiteko; adibidez, Oñatiko CO2 isuriei erreparatzen badiegu, urtean 21.700 Tm de CO2 isurtzen ditugu autoen desplazamenduetan bakarrik. Desplazamendu horiek murriztea soluzioaren zati bat izango da, noski, baina honek gizartean aldaketa bat eskatzen du eta aldaketa horiek epe luzea behar izaten dute” adierazi du Altunak.

Zinegotzi jeltzalearen iritziz, Oñatik martxan jarri beharreko epe motzeko beste soluzio batzuk badira eta horretarako baditugu gainera baliabideak Oñatin, bioekonomiaren baitan basogintza sustatzea, esaterako, bioekonomia horren lehengaia den egurra ekoizteko CO2a beharrezkoa izanik, horrek atmosferatik aipatu gasa xurgatzea dakar eta. Altunarentzat garrantzitsua da, halaber, norberak, bai norbanako modura edo kolektiboki, ingurumenean sortzen duen arrastoaren kontziente izatea eta arazoa eta balizko soluzioak ezagutzea. Bide horretan, datozen hilabeteetan jardunaldi batzuk prestatzeko asmoz

dabil. “Uste dut badaudela soluzioak baina lehen bai lehen martxan jarri behar ditugu, galtzeko denborarik ez baitugu eta beharrezkoa da gizartean ezagutza eta kontzientzia sustatzea” amaitu du zinegotzi jeltzaleak.

“EL PRIMER SECTOR PUEDE SER DECISIVO EN OÑATI PARA CUMPLIR LOS OBJETIVOS DE EMISIONES”

- **El grupo municipal EAJ-PNV está trabajando con personas del sector forestal, así como del agrícola y del ganadero, para revitalizar estos sectores que son claves, según los jeltzales, para hacer frente al cambio climático.**
- **EAJ-PNV propuso para los presupuestos municipales de 2020 una partida para realizar un diagnóstico del sector ganadero, sobre el que ya está trabajando el edil jeltzale Andoni Altuna colaborando tanto con personas del sector como del equipo de gobierno.**

Es evidente que la lucha contra el cambio climático es uno de los retos más importantes, si no el más importante, al que debemos hacer frente en la actualidad. Consciente de ello, el grupo municipal EAJ-PNV ha hecho del mismo uno de los ejes fundamentales de su labor. Dicho eje estaba presente en el programa electoral de los jeltzales, y ya venía siendo una parte importante de su hoja de ruta desde la anterior legislatura. En ese sentido, los jeltzales han realizado numerosas propuestas en los presupuestos de los últimos años para ayudar y fomentar el primer sector, convencidos de la necesidad de la conservación del mismo para luchar contra el cambio climático. EAJ-PNV realizó dos propuestas concretas en relación al primer sector y al cambio climático en los presupuestos para el 2020, por un lado, una partida para realizar un diagnóstico del sector agrícola y ganadero y por otro, una partida para realizar un plan contra el cambio climático. La primera de las propuestas fue aprobada, ya que contó con el voto favorable del equipo de gobierno que ostenta la mayoría en el pleno y la segunda propuesta fue desestimada en base a las citadas mayorías. Aunque sólo una de ellas fuera aprobada, los jeltzales están trabajando en las dos propuestas, ya que estiman necesario un plan para hacer frente al cambio climático, desde lo local, alineado con las estrategias que se están impulsando desde el Gobierno Vasco y con los objetivos que marca Europa.

En lo que se refiere al diagnóstico del primer sector, el edil jeltzale Andoni Altuna trabaja ya en el mismo, colaborando tanto con personas del sector como del equipo de gobierno. Según el edil jeltzale, “el primer sector puede ser clave tanto a corto como a medio plazo, debemos promover la bioeconomía (aquella que se nutre de los recursos locales), impulsar la producción y el consumo de productos km 0 y proteger un primer sector que mantiene nuestro entorno”. En este sentido, es de vital importancia realizar un diagnóstico del primer sector de Oñati, identificando medidas para que éste perdure y pueda contribuir también a ser parte de la solución al cambio climático. En esa labor se encuentra inmerso Altuna, aunque sin dejar de lado una visión más global, como decíamos, desde lo local buscando sinergias con otras instituciones.

En lo referente al plan contra el cambio climático, para la formación jeltzale es urgente empezar a tomar medidas que surtan efecto a corto plazo, ya que la crisis climática actual no nos deja mucho margen de tiempo. “Debemos trabajar medidas cuyos resultados se vean a corto plazo, para frenar el cambio climático antes de que éste sea irreversible, trabajando también medidas a medio-largo plazo, pero no sólo estas últimas, debemos ser efectivos desde ya” afirma Andoni Altuna. Además, en opinión del edil jeltzale, “para dar respuesta al cambio climático debemos actuar desde lo local para poder influir en lo global y para ello será necesario ser conscientes de en qué medida contribuimos al problema y en qué medida debemos contribuir a la solución; por ejemplo, si nos fijamos en las emisiones de CO2 de Oñati, podríamos estar hablando aproximadamente de 21.700 Tm de CO2 al año, tan sólo en desplazamientos de coches particulares. Evidentemente, reducir estos desplazamientos será parte de la solución, pero esto exige un cambio en la sociedad, algo que requiere un plazo medio o largo”.

Según el edil jeltzale, hay otro tipo de soluciones a corto plazo que se deben implantar en Oñati, donde hay muy buenos recursos, como la industria forestal enmarcada dentro de la bioeconomía, generando madera como materia base de la misma y que para su crecimiento requiere de CO2, contribuyendo a su

eliminación de la atmósfera. Para Altuna es muy importante que cada uno de nosotros seamos conscientes de cuál es nuestra huella medioambiental, tanto a nivel personal como a nivel comunitario, conocer el problema y las posibles soluciones, y con este objetivo espera poder organizar unas jornadas en los próximos meses. “Creo que hay soluciones, pero debemos empezar a aplicarlas ya, no hay tiempo que perder y es necesario impulsar el conocimiento y la consciencia en nuestra sociedad” concluye.